

## ARDURAZ JOKATU ETA ELKAR ZAIN DEZAGUN!

Aurten, COVID-19a dela-eta egoera berezia bizitzen ari garenez, gure jarduerak baldintza horietara egokitu ditugu.

Horretarako prestatu dugu jarraian aurkezten dizugun protokolo hau, ahal den neurrian, jarduerako parte-hartzaileen eta ingurukoen segurtasuna babesteko eta COVID-19aren transmisioa saihesteko. Irakurtzera gonbidatzen zaitugu, eta etxean dagokizun zatia betetzeko eskatzen dizugu, gure aldetik ere, jardueran halaxe egingo dugularik.

Nolanahi ere, neurri horiek aldatu egin daitezkeela gogora arazi nahi dizugu, une bakoitzeko egoeraren arabera eta osasun-agintarien gai honekiko aginduen arabera.

### Nola indartuko ditugu higiene- eta prebentzio-neurriak?

- Seinaletika (berariazko mezuak eta kartelak) indartu egin dugu, portaera, segurtasun-distantzia, higiene-neurriak eta abar gogorarazteko.
- Garbiketa- eta desinfekzio-lanak areagotu egin ditugu, laneko higienezaren eta osasunaren arloan eskumena duten agintariek emandako gomendioen arabera.
- Gelak eta aretoak egoki aireztatuko ditugu.
- Gel hidroalkoholiko ekologikodun banatzaileak, paperezko musuzapiak eta erabiltzen den materiala botatzeko ontzi espezifikoak jarri ditugu leku estrategikoetan, hala nola harrera-lekuan, beste leku batzuetarako sarreretan, geletan eta abarretan.

### Topagunea

- Kutxa Ekoguneko Harrera nagusiaren kanpo aldean elkartuko gara, maskara jantzita eta elkarbizitzen ari ez diren pertsonen artean osasun arduradunek gomendatutako distantzia soziala mantenduz.
- Jarduerako arduradunaren gidaritzapean, jarduera burutuko den espaziora joango gara eta bertan eskuak hidrogelarekin garbituko ditugu (sarreran topatuko duzue banatzailea).
- COVID-19arekin lotutako sintomatologiarik baduzuen (sukarra, eztula, arnasteko zailtasuna, ondoeza orokorrean ...) begiratu beharko duzue etorri aurretik eta sintomatologia horietakoren bat edukiz gero, ez duzue jarduerara etorri behar, ez eta COVID-19 birusak jotako pertsona batekin harremana izan baduzue ere.

### Nola arituko gara taldean?

- Jarduera burutuko den espazioan, elkarbizitzen ari ez diren pertsonen artean distantziak mantentzeko moduan kokatuko gara eta orduan maskara kentzeko aukera izango dugu.
- Mugitu beharra dugun oro, berriro maskara jantzea beharrezkoa izango dugu.
- Gidariak maskara jarrita izango du parte-hartzaileengana hurbiltzean, eta une horretan parte-hartzaileak ere jarri egin beharko du maskara.
- Kokagune ezberdinetan hidrogeleko banatzaileak topatuko dituzu, sarri-sarri eskuak garbitu ahal izateko.
- Zira, jertsea eta bestelako arropa ekarriz gero, soinean jantzita ez dituzuenean, zeurekin gorde beharko dituzu, norberak berea, arropa pilaketak ekiditeko. Arropa zaintza zerbitzurik ez da izango.

- Materiala partekatu beharrik ez diren jarduerak lehenetsi ditugu, baina materialen bat partekatu behar izanez gero, norberak erabili aurretik eta ondoren garbitu/desinfektatu beharko ditu horretarako eskura izango dituen likido desinfektatzaile eta zapiekin.

#### **Zer egin sintomarik agertuz gero?**

- COVID-19arekin lotutako sintomatologiarik baduzue (sukarra, eztula, arnasteko zailtasuna, ondoeza orokorrean ...) ez duzue jarduerara etorri behar, ez eta COVID-19 birusak jotako pertsona batekin harremana izan baduzue ere.
- Jardueran parte hartzen ari zaretela COVID-19 gaixotasunarekin (sukarra, eztula, arnasteko zailtasuna, ondoeza orokorrean...) zerikusia duten sintomak somatuz gero, jarduera eten beharko duzue. Kutxa Ekogunean badugu botikin berezi bat beharra izanez gero artatu ahal izateko. Ondoren, zuen osasun zentroarekin jarri beharko duzue harremanetan. Bertan egoera baloratuko dute. Uneoro jarduerako arduraduna informatuta mantentzea eskatzen dizuegu, 943552020 telefono zenbakira deituz edo [ekogunea@ekogunea.eus](mailto:ekogunea@ekogunea.eus) helbidera e-posta idatziz.

#### **Zer egin COVID-19 kasu egiaztatu bat agertuko balitz?**

- Jarduerako parte-hartzaileen artean COVID-19 kasu bat baieztatuz gero, jarduerako arduradunak telefono bidezko arreta-zerbitzuari edo dagokion osasun-zentroari jakinaraziko dio argibideak jasotzeko. Ezarritako jarraibideak beteko ditugu eta modu koordinatuan jokatu dugu. Jardueran erabilitako espazio itxi guztiak eta material guztia sakonki garbituko eta desinfektatuko ditugu.
- Bereziki zainduko dugu infektatutako pertsonaren pribatutasuna eta konfidentzialtasuna, horretarako sortutako protokoloari jarraikiz eta datuen babesari buruz indarrean dagoen legeria errespetatuz.
- KUTXAGESTION ZERBITZUAK S.L.U.k eskura dituen protokoloak eta neurriak erabat errespetatuta ere COVID-19 kasuren bat emango balitz, ezin izango diozue kalte-ordainik eskatu KUTXAGESTION ZERBITZUAK S.L.U.ri.

OHARRA: protokolo hau jarduerako parte-hartzaileen eta, zeharka, inguruko segurtasunerako landu dugu. Hori dela eta, parte hartzailearen batek ezarritako protokoloak behin eta berriz betetzen ez baditu, antolatzaileak, parte-hartzaile horrek jardueran ez jarraitzeko eta izen-emateari dagokion dirua ez itzultzeko erabakia hartzeko eskubidea izango du.